



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



FIRMA PROTOCOLO DE COLABORACIÓN ENTRE JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA, DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y AYUNTAMIENTO DE GALDAMES PARA CONMEMORAR EL BICENTENARIO DEL NACIMIENTO DEL ESCRITOR ENCARTADO ANTONIO DE TRUEBA

El próximo lunes, 15 de octubre, Juntas Generales de Bizkaia, Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Galdames firmarán un protocolo de colaboración con motivo de la celebración en 2019 del bicentenario del nacimiento de Antonio de Trueba. Este protocolo contará también con la colaboración del Museo de Las Encartaciones, perteneciente a Juntas Generales de Bizkaia, en labores de investigación y exposición.

El protocolo, que será rubricado por la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, la Diputada Foral de Bizkaia de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao y la alcaldesa de Galdames, Raquel Larruskain, será sellado en la casa natal del escritor encartado en el barrio de Montellano, en Galdames.

El acto comenzará a las 10:30 de la mañana en el centro del barrio donde nació el poeta. A ritmo de txistularis de Galdames, las autoridades se dirigirán al solar donde se encuentran los restos de su casa y el monumento que en 1930 se instaló en el lugar en homenaje al cronista de Bizkaia. En este lugar la alcaldesa de Galdames en representación de su municipio dará la bienvenida mientras que posteriormente intervendrán Ana Otadui y Lorea Bilbao. El historiador Joseba Agirreazkuenaga dará unas pinceladas sobre la vida y obra de Trueba al mismo tiempo que estarán presentes familiares descendientes del poeta.

Tras la firma del protocolo se llevará a cabo un lunch para todas las personas que se acerquen al lugar ya que el consistorio encartado ha extendido su invitación a los vecinos y vecinas de Galdames así como a las asociaciones culturales e instituciones de la comarca de Enkarterri.

La mañana será amenizada por los músicos Zuriñe Inzunza y Jon Ander Amigo, ambos vecinos de Galdames que junto al bertsolari galdamés Jokin Castaños pondrán el toque cultural y folklórico a esta cita que sellará el acuerdo por el que las tres instituciones se comprometerán a mantener viva la figura de Antonio de Trueba después de 200 años de su nacimiento.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



LANKIDETZAKO PROTOKOLOA, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN EUSKARA ETA KULTURA SAILAREN ETA GALDAMESKO UDALAREN ARTEKOA

Datorren astelehenean, urriaren 15ean, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Foru Aldundiak eta Galdamesko Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatuko dute, 2019an Antonio de Trueba jaio zela bi mende betetzen direla ospatzeko aldera. Proiektuak, Bizkaiko Batzar Nagusien menpe dagoen Enkarterrietako Museoaren lankidetzaz izango du ikerketa eta erakusketa lanetan.

Protokolo hori honako hauek sinatuko dute: Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako burua, Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatuak eta Raquel Larruskain Galdamesko alkateak. Protokoloa Galdamesko Montellano auzoan sinatuko da, Enkarterriko idazlea jaio zen etxean.

Ekitaldia goizeko 10:30ean hasiko da, poeta jaio zen auzoko erdigunean. Galdamesko txistularien erritmoan, agintariak idazlearen etxearen arrastoak eta haren omenezko monumentua dauden orubera joango dira. Monumentua 1930ean jarri zen bertan, Bizkaiko kronistaren omenez. Toki horretan, Galdamesko alkateak, udalerria ordezkatzuz, bertaratuei ongiatorria emango die. Gero, Ana Otadui eta Lorea Bilbaok hitz egingo dute. Joseba Agirreazkuenaga historialariak Truebaren bizitzari eta lanari buruzko zertzelada batzuk emango ditu. Bertan izango dira, halaber, poetaren ondorengo batzuk.

Protokoloa sinatu ondoren, luncha egongo da bertaratu diren guztientzat; izan ere, Galdamesko Udalak herritar egin die gonbidapena, baita Enkarterri osoko kultur elkarte eta erakunde guztiei ere.

Zuriñe Inzunza eta Jon Ander Amigo musikariek goiza girotuko dute. Galdamesko bi musikari horiek ez dira bakarrik egongo, Jokin Castaños Galdamesko bertsolaria ere bertan izango delako, hitzorduari kultura- eta folklore-ukitua emateko. Protokolo horren bidez, hiru erakundeek hitzematzen dute Antonio de Truebaren figura bizirik mantenduko dutela, jaio zenetik berrehun urte igaro diren honetan.

